

DEFINIZIOAK

Ondorioztatu azpiko definizioak zeri buruzkoak diren.

Gain lau batek eta hanka batek edo gehiagok osaturiko altzaria, jateko, idazteko edo lan egiteko erabiltzen dena.

Pilota-jokoan aritzeko prestaturik dagoen lekua.

Ikasteko erabiltzen den gela; bereziki, ikastetxe batean eskolak emateko prestaturiko gela.

Jolasean aritzeko gauza; bereziki, haurrak jolasteko egiten den edo balio duen gauza.

Barnean grafitozko hagatxo mehe bat duen zurezko zotz modukoa, idazteko edo marrazteko erabiltzen dena.

Gizakia bizitzeko prestatzen den eraikina. Zurezko, adreiluzko edo harrizkoa izan daiteke.